

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako kontzejuak 2022an gastu arrunt, obra eta jarduerak egitea finantzatzeko laguntzen deialdia jasotzen duen 2023ko uztailaren 19ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 709404.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/709404>).

Deialdiaren xedea

2022an zehar Donemiliagako kontzejuak egin edo sustatutako gastu arruntak, obrak eta jarduerak finantzatzen laguntzea, oinarritzko zerbitzu publikoak garatzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuaz eginak badira.

Diruz laguntzekoak izango dira udalerrri honetako kontzejuak 2022an zehar egin edo sustatutako gastu arruntak (argiteria, klorazioa...), obrak eta jarduerak.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Beste laguntza edo deialdiren baten bidez diruz laguntzen diren gastu arruntak, inbertsioak eta jarduera bereziak, salbu eta haien diruz lagundu gabeko zatia.
- Otorduek, elikagaiek... sortutako gastuak.

Onuradunak

Donemiliagako udalerriko kontzejuak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako udalbatzak 2023ko uztailaren 19an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetarako gehieneko aurrekontua 175.485,74 euro izango da.

Banaketa irizpideak

a) Zenbateko finkoa (12.629,28 euro), zeina 789,33 euroko banaketa linealari baitagokio, udalerriko hamabost kontzejuen artean banatuko da, kontuan izanik kontzejuak osatzen dituzten herriguneetako biztanleak hornitzeko diren ur andelak eta haien hoditeria.

b) Ur andelen banaketa linealetik geratzen den zenbatekoaren (162.856,46 euro) ehuneko 60 (97.713,88 euro), zati berdinetan banatuko da udalerriko hamabost kontzejuen artean. Horiek horrela, kontzeju bakoitzak 6.514,25 euro jasoko ditu.

c) Gainerako ehuneko 40a (65.142,71 euro), proportzioan banatuko da, kontzeju bakoitzak 2023ko urtarilaren 1ean erroldaturik dituen biztanleen arabera.

d) Aurrekontu aplikazioan aurreikusitako 2.000,00 euroko zenbatekoa auzo konpostajeko jardunbide egokietara bideratuko da.

Jarduera hori abian jarri duela eta horretan lanean diharduela egiaztatzen duen kontzeju bakoitzari gehienez ere 500,00 euroko dirulaguntza emango zaio, eta zenbateko hori kontzejuarentzat kalkulaturako dirulaguntza osoari gehituko zaio.

Eskaerak aurkezteko epea

Herri guztiek eskaerak eta justifikazio agiriak aurkezteko duten epea 2023ko urriaren 20an bukatuko da.

Erdoña, 2023ko uztailaren 21a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO